

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

2472

74/2014 DEKRETUA, maiatzaren 6koa, Prestakuntzan eta Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko Zentroetako (Berritzeguneetako) lanpostu-zerrenda onartzeko Dekretua laugarrenez aldatzeko dena.

Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Unibertsitatekoen kanpoko Irakaskuntzarako Irakasleen Kidegoei buruzko otsailaren 19ko 2/1993 Legeak, II. tituluari irakaskuntzako funtzio publikoaren egitura eta antolaketa, I. kapituluari, lanpostu-zerrendak arautzen ditu.

Lege horren 5. artikulua ezartzen du aipatutako lanpostu-zerrendek zer jaso behar duten gutxienez: lanpostuaren izena, lanpostua atxikita duen ikastetxea, ikuskaritza teknikoko zerbitzua edo ikerketa eta irakaskuntzari laguntzeko zerbitzua, eta, hala balegokio, hezkuntza-administrazioaren lurralde-esparrua; lanpostua betetzeko beharrezko diren baldintzak, eta, horien artean, nahitaez, izendatutako hizkuntza-eskakizuna, eta, hala badagokio, derrigortasun-data; lanpostu bakoitzari zein talde, kidego edo maila edo lan-arloko kategoria dagokion; eta, azkenik, funtzionarioentzat gordetako lanpostuak izanez gero, lanpostuari dagokion berariazko osagarria eta lanpostua betetzeko bidea.

Lege beraren 4. artikuluko I) idatzi-zatiak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari (gaur egun Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuaren 10. artikuluan xedatutakoari jarraiki) ematen dio irakasleen lanpostu-zerrenda proposatzeko ahalmena, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 5. artikuluen h) idatzi-zatiarekin bat etorriz, azken horrek Jaurlaritzari esleitzen baitio lanpostu-zerrendak onartzeko eskumena.

Beharrezkoa da Prestakuntzan eta Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko Zentroetako (Berritzeguneetako) lanpostu-zerrenda aldatzea –otsailaren 17ko 41/2009 Dekretuaren bidez onartua–, Berritzegune Nagusiari dagokionez, antolaketa aldetik koherentzia handiagoa izan dezan. Ildo horretatik, gaur egun hutsik dagoen arduradun lanpostu bat, aipatutako Berritzeguneetako dena baina Lasarteko egoitzan kokatuta dagoena, Bilboko egoitzara lekualdatuko da, eta, horrela, antolaketa aldetik erantzun egokiagoa eta funtzioei dagokienez eraginkortasun handiagoa lortuko da.

Horren ondorioz, Hezkuntza, Hizkuntza eta Kulturako sailburuaren proposamenez, Euskadiko Eskola Kontseiluari entzunda, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2014ko maiatzaren 6an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehen artikulua.– Prestakuntzan eta Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko Zentroetako (Berritzeguneetako) lanpostu-zerrenda onartzen duen otsailaren 17ko 41/2009 Dekretua aldatzea, Berritzegune Nagusiari dagokionez. Aldaketaren ondorioz, Bilbon duen egoitzara lekualdatzen da Hezkuntza Premia Berezien arduradun plaza bat, orain egoitza Lasarten duena.

Bigarren artikulua.– Berritzegune Nagusiko lanpostu-zerrenda dekretu honen eranskinean jasota bezala geratzen da, eta 2014ko irailaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

2014ko ekainaren 5a, osteguna

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2014ko maiatzaren 6an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERÍA.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

2014ko ekainaren 5a, osteguna

ERANSKINA, 74/2014 DEKRETUARENA

BERRITZEGUNE NAGUSIA, EGOITZA: BILBO / LASARTE / GASTEIZ

Lanpostua	Hizkuntza-eskakizuna	Titulazioa	Esperientzia	Taldea	Lekua
Zuzendaritza.	2.a, egiaztatua	Goi-mailako titulazioa	Zuzendaritza-lanetan edo antzekoetan: 3 urte	A/B	Bilbo
Arloko aholkularia: Euskal hizkuntza eta Literatura.	2.a, egiaztatua	Lizentzia edo kidegoan arlotik sartzea	Arloan: 3 urte	A	Bilbo
Arloko aholkularia: Atzerriko hizkuntzak (ingelesa).	2.a, egiaztatua	Lizentzia edo kidegoan arlotik sartzea	Arloan: 3 urte	A	Bilbo
Arloko aholkularia: Gaztelania eta Literatura.	2.a, egiaztatua	Lizentzia edo kidegoan arlotik sartzea	Arloan: 3 urte	A	Bilbo
Arloko aholkularia: Natura-zientziak.	2.a, egiaztatua	Lizentzia edo kidegoan arlotik sartzea	Arloan: 3 urte	A	Bilbo
Arloko aholkularia: Gizarte-zientziak. Geografia eta Historia.	2.a, egiaztatua	Lizentzia edo kidegoan arlotik sartzea	Arloan: 3 urte	A	Bilbo
Arloko aholkularia: Matematika.	2.a, egiaztatua	Lizentzia edo kidegoan arlotik sartzea	Arloan: 3 urte	A	Bilbo
Arloko aholkularia: Plastika eta Ikus Hezkuntza:	2.a, egiaztatua	Lizentzia edo kidegoan arlotik sartzea	Arloan: 3 urte	A	Bilbo
Arloko aholkularia: Musika.	2.a, egiaztatua	Lizentzia edo kidegoan arlotik sartzea	Arloan: 3 urte	A	Bilbo
Arloko aholkularia: Gorputz Hezkuntza.	2.a, egiaztatua	Lizentzia edo kidegoan arlotik sartzea	Arloan: 3 urte	A	Bilbo
Aholkularia: Helduen Hezkuntza.	2.a, egiaztatua	Goi-mailako titulazioa	Esparruan: 3 urte	A/B	Bilbo
Aholkulari teknikoa: Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak.	2.a, egiaztatua		IKTetan: 3 urte	A/B	Bilbo
Aholkulari teknikoa: Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak.	2.a, egiaztatua	Goi-mailako titulazioa	IKTetan: 3 urte	A/B	Bilbo
Aholkulari teknikoa: Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak.	2.a, egiaztatua	Goi-mailako titulazioa	IKTetan: 3 urte	A/B	Bilbo
Zeren arduraduna: Eskola inklusiboa (Aniztasuna eta generoa).	2.a, egiaztatua	Goi-mailako titulazioa	Proiektuak esparruan: 3 urte	A/B	Bilbo
Zeren arduraduna: Ikas-komunitateak.	2.a, egiaztatua	Goi-mailako titulazioa	Proiektuak esparruan: 3 urte	A/B	Bilbo
Zeren arduraduna: Hizkuntzan Tratamendu Integratua.	2.a, egiaztatua	Lizentzia, gaikuntza edo kidegoan esparru soziolinguistikotik sartzea	Esparruan: 3 urte	A/B	Bilbo
Zeren arduraduna: Curriculum berria eta oinarrizko gaitasunak.	2.a, egiaztatua			A/B	Bilbo
Zeren arduraduna: Kalitatea.	2.a, egiaztatua			A/B	Bilbo
Zeren arduraduna: Hezkuntza-premia bereziak.	2.a, egiaztatua	Psikologia, Pedagogia edo Psikopedagogia	Hezkuntza Berezian: 3 urte	A/B	Bilbo
Arloko aholkularia: Orientabidea:	2.a, egiaztatua	Psikologia, Pedagogia edo Psikopedagogia	Orientabidean: 3 urte	A	Lasarte

2014ko ekainaren 5a, osteguna

Lanpostua	Hizkuntza-eskakizuna	Titulazioa	Esperientzia	Taldea	Lekua
Arloko aholkularia: Teknologia.	2.a, egiaztatua	Arloa emateko eskatutako titulazioa	Arloan: 3 urte	A	Lasarte
Aholkularia: Helduen Hezkuntza.	2.a, egiaztatua	Goi-mailako titulazioa	Esparruan: 3 urte	A/B	Lasarte
Zeren arduraduna: Hezkuntza zientifikoa.	2.a, egiaztatua	Lizentzia edo kidegoan esparrutik sartzea	Natura-zientzien esparruan: 3 urte	A	Lasarte
Zeren arduraduna: Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak.	2.a, egiaztatua	Goi-mailako titulazioa	IKTetan: 3 urte	A/B	Lasarte
Zeren arduraduna: Atzerriko hizkuntzak.	2.a, egiaztatua	Lizentzia edo kidegoan esparrutik sartzea	Esparruan: 3 urte	A/B	Lasarte
Aholkularia: Helduen Hezkuntza.	2.a, egiaztatua	Goi-mailako titulazioa	Esparruan: 3 urte	A/B	Gasteiz
Zeren arduraduna: Kultura-artekotasuna.	2.a, egiaztatua	Goi-mailako titulazioa	Proiektuak esparruan: 3 urte	A/B	Gasteiz
Zeren arduraduna: Bizikidetzeta.	2.a, egiaztatua	Goi-mailako titulazioa	Proiektuak esparruan: 3 urte	A/B	Gasteiz
Zeren arduraduna: Hizkuntza-normalizazioa.	2.a, egiaztatua	Goi-mailako titulazioa	Proiektuak esparruan: 3 urte	A/B	Gasteiz